

EMAÚS, MISERIA ETA BAZTERKETAREN AURKAKO MUNDUKO BORROKA MUGIMENDUA: “MUNDUA ALDATZEA” POSIBLE DA GUZTIOK LANARI EKITEN BADIOGU, BAKOITZA BERE BALIABIDEEN ESKUMENEAN.

1999ko Munduko Batzarraren azken adierazpenaren laburpena (Orléans, Frantzia)



emaús mugimenduaren
1969ko Munduko Batzarrak onartua (Berna, Suitza)

adierazpen

unibertsala

EMAÚS gure izena Palestinako herri bati dagokio, etsita zeuden batzuk berriz ere itxaropena aurkitu zuten herri bati. Izen honek, guztiei gure ueste sendoa gogorarazten die, sinisdunak direnei eta ez direnei, elkartu gaitzakeen eta elkarturik aurrera egitea ahalbidetzen gaituen bakarra Maitasuna da. EMAÚS Mugimendua 1949ko azaroan jaio zen ondorengo topaketetatik: egoera pribilegiatua zuten eta bidegabekeriaren aurrean zituzten gizarte erantzukizunak ezagutzen zituzten gizonen topaketa, eta jada, bizitzeko arrazoirik ez zuten gizonen topaketa. Gizon hauek, beraien borondate eta ahaleginak batu zituzten elkarri laguntzeko eta sufritzen zeudenei laguntza emateko, besteak salbatuz norbera salbatu daitekeelaren ueste osoan. Helburu honekin, bizitzeko eta emateko lan egiten duten Komunitateak eraiki dira. Gainera, hiri- eta pribatu-mailan borrokatzen duten, lagun eta boluntario taldeak osatu dira. **1.GURE LEGEA,**

gizadi guztiarentzat, bizi daitekeen bizitza duin oro, egiazko bake oro eta banako eta gizarte bakoitzaren poztasunaren mendean dagoen hori da. “Norberari ordez, zorientasun gutxiago duenari lehenago zerbitzatu”. “Gehien sufritzen ari denari lehen zerbitzatu”. **2.GURE ZIURTASUNA** lege honekiko errespetuak justizia bilaketa osoa animatu behar du, eta ondorioz, gizakien arteko bakea. **3.GURE HELBURUA,** gizaki, gizarte, herrialde bizi ahal izateko ekitea da, trukean baieztatu eta errealizatzea da eta duintasun bereko baldintzetan elkarbanaketa egitea. **4.GURE METODOA,** pertsona guztiak aske eta errespetatuak sentituz, dituzten beharrak asetu eta elkarrekiko laguntza emateko, bitartekoak sortu, mantendu eta animatzean datza. **5.GURE LEHEN BITARTEKARIA,** posible den leku guztietan, gauza guztiei berriz balorea ematea ahalbidetzen duen berreskurapen lana egitea eta gehien sufritzen dutenen alde, larrialdiko ekintzen aukerak biderkatzea dira. **6.GAINONTZEKO BITARTEKO GUZTIAK,** Kontzientzia esnatzea eta

erronka sortzen dituztenak, zerbitzatzeko eta zerbitzatuak izateko ere erabili behar dira, lehenik eta behin, gehien sufritzen dutenei, dituzten zaitasun eta borrokak –pribatuak eta hiritarrak– elkarbanatuz, miseria bakoitzeko zergatien suntsiketara burutu arte. **7.GURE ASKATASUNA** EMAÚS bere eginkizunaren betekizunean, ez dago lotuta Adierazpen honetan azalduta ez dagoen beste ideal bati ere, ezta bere baitan sortua izan ez den beste agintari bati ere erakundearen bertako arauen arabera. Nazio Batuek onartutako Giza Eskubideen Adierazpena eta gizarte eta herrialde bakoitzeko bidezko legeen adostasunean ekiten du, politika, arraza, linguistika, espiritual edo beste izaerako diskriminaziorik gabe. Gure ekintzan parte hartu nahi duen edonori, Adierazpen honen edukia onartzea besterik ez zaio eskatuko. **8.GURE KIDEEI** Adierazpen honek, EMAÚS Mugimenduaren oinarri arrunt eta zehatza osatzen du. Kide aktiboa izan nahi duen talde bakoitzagatik onartu eta aplikatua izan behar du.



NAZIOARTEKO EMAÚS

GIZARTE-EGOERA AHULEAN DAUDENAK MUNDU SOLIDARIO BATEN ALDE LAN EGITEN DUTE!

Nazioarteko Emaús, Abbé Pierre-ren oinordekoa, 1971 urtetik mundu guztiko bazterketaren zergatien aurka borrokatzen ari den mugimendu laikoa da. Bere helburua, gizartean baztertuak daudenei erabakitzeo aukera eskaintzea da, besteei laguntza emanez. Indiatik Poloniara, Benin edo Perutik igaroz, Nazioarteko Emaús bertakoak diren 300 erakunde baino gehiagoz osatuta dago, 36 herrialdeetan egonik, ekintza ekonomiko eta solidarioak burutzen dira behartsuenekin: objektu erabilien berreskurapena zarrastelkeriaren aurka borrokatzeko, artisautza, nekazaritza ekologikoa, kaleko haurrei laguntza ematea, mikrokredituak... Lau puntu kardinaletan, erakunde hauek energiak elkartzen dituzte eta solidaritate loturak ezartzen dituzte. Nazioarteko Emaúsek, oinarritzko eskubideetarako sarrera, pribilegio bat dela ezin dela izan aldarrikatzen du. Hori dela eta, kide diren hainbat erakunde beraien indarrak elkartu eta lotura solidarioak ezartzen dituzte, bost ardatz politikoen inguruan modu kolektiboan ekiteko: uraren sarbidea, osasunerako sarbidea, hezkuntzarako sarbidea, finantziario etiko eta migranteen eskubideen defentsa. Ahaztuak dauden gizarte errealitateetan eguneroko lanarekin eta bere taldeko konpromiso politikoarekin, mundu osoko Emaús taldeek eredu sozioekonomiko etiko eta solidarioak ezartzea posible eta bideragarria dela adierazten dute.

> MISERIAREN ZERGATIEN AURKA BORROKATU

Emaús Mugimendu bezala, “justiziagatik egiten den borroka ororen aurretikoa eta osagarria” izateaz gain, ahulena direnekin hitzemandako dago; bere misioa ez da bakarrik larrialdi kasuetan laguntzea, beraien bidezko eskubideak, haiek berak aldarrikatuz dituzten laguntza ere, hauda, “beraien ahotsa” entzunaraztea egin dezaten. Konpromiso honek inplizituki esan nahi du, Emaús kontziente edo inkontzienteki miseriaren eragile diren guzti horiekin gatazkan dagoela eta irauten duela, batez ere, nazio edo nazioarteko menderatze ezberdinen bitartez. Nazioarteko Emaúseko kide den elkarte bakoitzari dagokio, baldin eta bertako errealitateen arabera, Emaúsen konpromiso honen zabaltze eta mugak aldarrikatzeko modua eta aukera zehaztea, eta ikuspegi honetan, taldearen praktika sozialak orientatzea. *Emaúsen Konpromiso sozialaren Zabaltasun eta Mugak testuaren laburpenak, 1979ko Munduko Batzarrak onartua (Århus, Danimarka)*